

Izapideen Zerbitzu Orokorreko kudeatzaile arduradunen postuen eginkizunen edukia

Kudeatzaile arduradunak, Izapideen Zerbitzu Orokorreko zuzendaritzarekin lankidetzan, zerbitzuan lan egiten duten langileak antolatu, kudeatu eta koordinatuko ditu, dela zuzenean langile horiei dagokienez, dela jarduteko protokoloek ezartzen dituzten talde funtzionalak koordinatuz, dela zuzendaritza-postuetan aritzen direnek emandako jarraibideen bitartez.

Halaber, esparru prozesalean, Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoari legez dagozkion eginkizunak beteko ditu.

Eginkizunak:

- Zerbitzu horren zuzendariari laguntza ematea zerbitzu hori antolatu, planifikatu, ikuskatu eta kudeatzeko lanetan, eraginkorragoa izan dadin.
- Zerbitzu-zuzendariaren jarraibideei jarraituz, zerbitzu horri atxikitako langileen jarduera eta zereginen banaketa zaintzea eta koordinatzea; ondo garatzen direla, informazio-sistemek ondo funtzionatzen dutela eta hirugarrenekin eta bulego judizialeko beste zerbitzuekin harreman egokia dutela bermatzea.
- Kalitate-adierazleak proposatzea, jarraipena egitea eta aldizka ebaluatzea.
- Justizia eta Giza Eskubideen Saileko organo eskudunekin lankidetzan aritzea, antolaketa-arloan eta giza baliabideak eta baliabide materialak kudeatzeko arloan dituzten zereginetan.
- Fitxategien eta erregistroen eguneratzea kontrolatzea eta ikuskatzea.
- Zerbitzuko zuzendariari estatistika judiziala egiten laguntzea.
- Zerbitzuko zuzendariaren jarraibide tekniko eta prozesalei jarraituz, prozeduren izapidetzea ikuskatzea, lege prozesalekin, jarduketa protokoloekin eta zirkular eta jarraibideekin bat etorrira.
- Indarrean dauden legeek, erregelamenduek eta antolaketa-arauek Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoari esleitzen dizkioten eginkizunak.